

MANUEL LEKUONA SARIA

Txomin Peillen

Egun on daizuela andereak eta jaunak

Mesdames, Messieurs bonjour

Señoras y señores buenos días

Guten Morgen Herren und Damen

Saidati Sadati sabah ennur

Azul massaten akwed massan

Je tiens à saluer dans leurs langues mes amis présents. Je ne pourrai continuer dans chaque langue faute de les connaître. Je m'exprimerai d'abord dans ma langue maternelle

Agurtu nahi nituzke eta eskertu lehenik hemen dauden Hegoaldeko Eusko Ikaskuntzako buruzagitzatik de la Cuesta jauna eta Iparraldeko Jean-Michel Larrasquet mintzatu zaizkigunak, gure ipar ordezkariak fundatu eta azkartu zuten Isabela Ajuriagerra, Jean Fagoaga, eta Jean Claude Larronde aiantzi gabe. Eskerrak eman nahi nizkieke Jean Grenet hiri honetako auzapezari leku honen prestatzeagatik, baita Jean René Etchegaray hiriko kultura arduraduna mahainetik mintzatu zaiguna.eta Christian Manso jauna Pauen nire dekanu izana, eta orain Baionako fakultatean dekanu den Philippe Zavoli jauna. Agurtzen dut ere Euskal Idazleen elkarteko gure lehendakaria Edurne Sorraluze anderea, Euskaltzaindiko buruzagi eta lagunak, Piarres Charriton, Jean Haritschelhar, Andres Urrutia, Xabier Kintana, Beñat Oihartzabal, Aurelia Arkotxa, Xarles Videgain eta Jean Louis Davant mintzatu dena, adiskideak eta askaziak egun on.

Eskerrik anitz Eusko Ikaskuntzari Manuel Lekuona saria eman didalako, ezen denbora berean On Manuel ohoratzen duelako. Ez dugu aiantzi behar Lekuona jauna Eusko Ikaskuntzaren sortzaileetako

izan zela, Euskaltzaindiko gure akademiako buruzagi izendatu zela duela berrogeita hiru urte.

Duela 22 urte hil zitzaigun oiartzuar euskaltzale handia; ikerlaria genuen eta ahozko literaturaren, herriko kantuen, koplak, bertsoen eta pastoralen balioa oroitarazi zituen, bere *Literatura oral euskérica* liburuan bai eta artikulu hanitzetan hamabi liburutan bildu zirenak. Haur kantuak idatzi zituen baita *Ehun dukat* izeneko komedia eta *Zigor* operaren libretoa.

Orain, ene aldi. Euskaldun eta euskal idazle edo ezkiribazale egin nindutenak ohoratu nahi nituzke ene zorrak aitortuz. Euskaldun egin ninduten amak eta oroz gain Xüberoako askaziek lehenik; gero, Andima Ibiñagabeitia elantxobetarrak eta Gotzon Egaña donostiarrekin Gipuzkoako euskaraz mintzatzen eta idazten ikasi nuen. Parisen bizi eta ez zitzaidan aisa izan euskararen begiratzea, eta ikastea ere, batzuk erraten baitzidaten «Zentako denbora galtzen dük aphez mintzaje horren ikasten» Ez nuen batere apezteko gogorik, haurzaroan, txipian, labe ondo batetan ogiegile izan nahi nintzelako ordukoz hozpera nintzelako.

Bigarrenik gogoan ditut lehenago euskaraz literatura idaztera eraman ninduten, Andima Ibiñagabeitia, Luis Mitxelena, Jon Mirande, eta Gabriel Aresti, azken horrek espainolez ere idaztera erakarri ninduenak. Aitor dezadan ez banu plazerrik hartu idazten, izaten nuen arrakasta txipiagatik ez nuela egiten jarraikiko.

Orain, euskaraz idazten sustatzen naute *Maiatz* errebistan Lucien Etxezaharretak, Manex Pagolak *Zubiak* aldizkarian, Jokin Apalategik *Utriusque Uasconiae* argitaletxean, Andres Urrutiak

Euskaltzaindikoan euskaltzainak bilduman, eta Sabin Oregik *Dakit* argialetxekoa, besteek ez naute ezagutzen.

Literaturatik kanpo, Jose Maria Satrustegik eta Apalategi anaiek akulaturik nire jakintza ikerketako, hogeita bost liburuetarik, hogeita bat euskaraz egin ditut. Ene xedea izan da, ahalaz, Xüberoako laborari eta artzain munduan kurritzen ziren jakitateak biltzea: ihizeaz, zepoen edo arteen erabiltzeaz, lehenagoko etxe erremedioak eta gorputzaren inguruko ezagutzeak, sineste zaharrak, jatekoak eta beste.

Gero, frantsesez eta bi mintzairetan ikerlanak libreki agerrarazi nituen *Bulletin du Musée Basque* horretan Jean Haritschelhar zuzendari eta zuzentzaile zeno, baita ene doktoratua jaun hunekin egin Bordelen. Esker mila Gehexan Ponttori. Eusko Ikaskuntzako jardunaldietan parte hartzen lagundu eta laguntzen nauan Maite Lafourcade adiskideari, milesker.

Biziek gaudeno ez zait sekulan ahantziko bost liburu mahain tiranta, kaxoi zoko batean, zeudenak agerrarazteko lagundu nindutela Pariseko euskaldun ikasleen sinadurek eta geroztik ere sustatzen nautela orduko Jokin Apalategi eta Maite Idirin adiskideek.

Isilena laguntzaile, sostengu handi eta pazientziarekin jasan eta jasaten nauen Marie-Thérèse emaztea dut. Odeiengan bizi garenok holakoen beharra badugu ezpagara Ikaro hegal gizona bezala odeietarik gogorki erori nahi.

Chers francophones

Ce jour il convient que nous fassions un rappel du nom de Manuel Lekuona qui honore ce prix, et qui fut un des fondateurs de notre Eusko Ikaskuntza, ancien président de l'Académie Basque, spécialiste de la littérature populaire décédé il y'a vingt deux ans. Manuel Lekuona attira par ses analyses l'attention des Basques sur la littérature populaire: la chanson, le théâtre, la pastorale et le parathéâtre; il écrivit lui-même sans mièvrerie, ni prétention, à côté de poèmes religieux, des chansons pour les enfants, la pièce de théâtre *Ehun dukat* (Cent ducats) et le livret de l'opéra *Zigor* « Châtiment » qui raconte un épisode sanglant d'une succession royale en Navarre et bien d'autres écrits sur l'histoire et la vie populaire à Oiartzun.

Quant à moi, devenu bascophone, écrivain en littérature et en recherche mon voeu aujourd'hui est d'honorer tous ceux qui ont fait de moi un bascophone, notre mère et notre famille souletine et ceux qui m'ont appris le guipuzcoan littéraire Gotzon Egaña de Saint Sébastien, Andima Ibiñagabeitia d'Elantxobe. Je dois d'être entré discrètement en littérature à ces deux derniers mais aussi à Luis Mitxelena, Aingeru Irigaray, Jon Mirande et Gabriel Aresti.

Il y'a soixante ans celui qui entrait en littérature par le sentier basque n'y trouvait pas des roses, mais des ronces. Ecrire librement en Pays Basque français fut une gageure car nos écrits iconoclastes provoquèrent l'indifférence des bien-pensants et des libres penseurs instruits de l'élite basque-française ou l'hostilité d'une

partie du clergé, enfin l'absence de maisons d'édition laïque basque au nord de la Bidassoa ne nous aida pas.

Toutefois, malgré les difficultés des censures sous Franco nous réussissions au bout d'une dizaine d'années à publier des livres dans les éditions basques du sud. Ce n'est qu'à partir des années soixante que notre littérature, en bien ou en mal, est devenue laïque et prolifique dans tous les domaines de la pensée et de la recherche et seulement à partir des années 80 que la revue *Maiatz* introduisit la littérature moderne en Pays Basque nord. Auparavant, une pétition signée par des étudiants basques de Paris dont Jokin Apalategi et Maite Idirin ici présents me permit de sortir des tiroirs cinq livres qui y sommeillaient, certains depuis vingt ans.

Pour la recherche rédigée en basque Jose Maria Satrustegi et Jose Martin Apalategi m'encouragèrent beaucoup Le monde rural souletin et des informateurs, m'aidèrent à réaliser mes enquêtes ethnologiques sur la chasse, la médecine populaire, le piégeage, les croyances, les histoires comiques, la nourriture, les jeux anciens, la langue et autres; deux de mes informateurs, Jean et Bernard Carricaburu "Dordorrage" sont présents parmi nous.

Pour la recherche en langue française et en textes bilingues le *Bulletin du Musée Basque*, lorsqu'il était dirigé par Jean Haritschelhar, me fut toujours ouvert en toute liberté, je l'en remercie encore. Le professeur Jean Haritschelhar fut mon directeur de thèse à Bordeaux III et également notre président d'Académie pendant une bonne décennie. Notre amie Maite Lafourcade me maintint, également, dans la recherche avec Eusko Ikaskuntza et avec son Centre d'Etudes basques.

Actuellement pour l'écriture en basque j'ai le soutien d'Andres Urrutia le président actuel d'Euskaltzaindia ceux de Jokin Apalategi, de Lucien Etchezaharreta, de Sabin Oregi et de Manex Pagola.

Je n'oublie pas le rôle important joué par mon épouse Marie-Thérèse Olivier qui depuis 46 ans m'encourage, me supporte dans mon nomadisme culturel et professionnel et c'est elle qui me permet de revenir de la lune où je fais de fréquents voyages.

Enfin je dois rappeler que la chaire de basque de Bayonne que j'obtins fut le fruit de l'obstination et du soutien de messieurs Labayle et Manso.

Pour terminer je tiens à reconnaître que grâce à tout ce monde j'ai eu la chance publier 44 livres en trois langues; lorsqu'on me demande comment j'ai fait, ma réponse est que depuis l'âge de 16 ans je n'ai cessé d'écrire et peut-être ai-je trop écrit. Et tout cela je le dois à toutes les personnes parfois disparues mais beaucoup encore bien en vie. Merci pour votre présence à tous.